

Lide Urteaga Riaño

E maila • 1 saria

Kaixo!

Lide Urteaga nauzue, 11 urteko neska beasaindarra. La Salle ikastetxean LH 6.mailan nago.

Nire zaletasunen artean musika, pianoa, korala eta kirola daude; kirolean gehien atsegin dudana saskibaloia da. Halere, benetan gustuko dudana nire lagunekin egotea da. Taldean primeran pasatzen dugu!

Saria irabazten dudan laugarren urtea da eta aurten ere, poz handia hartu dut.

Sari hau nire familiari eskaintzen diot. Espero dut zuen gustukoa izatea!



XAKE-MATE

Apirilaren 21a,

Oporren ondorengo eskolako lehen eguna ez zait gustatzen. Goizean gosaria kostata hartu dut eta aurreko eguneko afarian ia ez nuen mokadurik jan. Urduri nengoen, korapiloa neukan urdailean eta buruan milaka pentsamendu jira eta bira. Eskolarako bidean Anerekin elkartu naiz eta besoak irekita inguratu eta besarkada handi bat eman dit. Ane nire lagun hoberena da, haurtzaindegitik elkarrekin gaude eta gure artean ez dago sekreturik. Berriketan gelara igo gara eta hantxe topatu dugu Maite, harrera ezin hobe egin digu. Atximur bat masailean egin eta irribarre gozo batekin gure mahaian esertzeko esan digu.

Gaur Aste Santuko oporretatik bueltan etorri gara eta uste nuena baino polikiago joan da.

Apirilaren 22a,

Goizean, gorputz-hezkuntza garaian bikoteka jarri behar ginenean, Mikel bakarrik zegoen, inork ez duelako Mikel kontuan hartu. Maite irakaslea haserretu egin da eta ikasle guztiak bildu ditu. Bakoitza den bezalakoa da. Mikel xakean oso trebea da, gainera sariak irabazi ditu.

Iluntzean mahai inguruan afaltzeko elkartu garenean, gorputz-hezkuntzan izandako gorabehera kontatu diet etxekoei. Mikel baztertuta izaten jarraitzen duela jakitea izugarria iruditu zaie eta jarrera horrek zerbait gaizki doan seinale dela esan dio aitak amari. Amak buruarekin baiezkota egin eta desberdintasunak onartzen nahiko lan dugula esaten jarraitu du. Baina zer da desberdina izatea?

Apirilaren 25a,

Gurasoekin izandako elkarriketaren ondoren, gogoratu dut Mikel panpin batekin gelara etorri zenean hasi zela dena. 2. mailan geunden eta Pili irakasleak eskatu zigun gure jostailu

gogokoena eramateko. Laguntxoei azaldu behar genien jostailua zergatik zen hain maitea guretzat. Mikelek, baloi koloretsu, pelutxezko panpin, Playmobil eta super- heroien artean motxilatxo batetik bere Barbie panpina atera eta ilea orrazten hasi zen.

Neska gehienak bezala bere panpinaren inbidia izan nuen eta mutilak, berriz, iseka egin eta neska zela mespretxuz esan zioten. Pili irakaslea gorri-gorri eginda, gela zuzendu nahian zebilen, Mikel berriz, txiki-txikia egin zen eta benetako malkoak masailetatik behera Barbie-kin batera erori zitzaizkion. Handik aurrera irain eta eraso gogorrek jasan behar izan ditu Mikelek.

Txikitik ez nintzen hain ausarta baina orain planto egiteko momentua iritsi da!

Apirilaren 26a,

Aurtengo Kultur astea antolatzeke gonbidapena luzatu digute. Maitek erronka bat dela esan digu eta originalak izateko eskatu digu. Talde bakoitzak bere ekintzen proposamena biharko aurkeztu behar du. Buruan hamaika ideia bururatu zaizkigu Ane, Jon eta niri.

Aurtengo Kultur asteak desberdina izan behar du, horixe baietz!

Apirilaren 27a,

Gelara igo aurretik patioko komunetan asanbladan bildu gara Ane, Jon, Asier eta neu Kultur asterako ekintzen zerrenda berrikusteko asmoarekin. Agenda pixkanaka- pixkanaka betetzen hasi da egindako ekarpenekin: ipuin kontaketa, karaokea, pintxo lehiaketa, eskulanen erakusketa, xake tailerra... Mikelen taldekideek xake tailerraren ardura berari egokitu diote, "crac" bat da eta. Gure proposamena baloirik gabeko astea dela esan ondoren, isiltasuna nagusitu da gelan, baina, honek gutxi iraun du. Xabat eta bere taldeak Mikelen errua dela oihukatu dute eta hitz iraingarriak entzun behar izan ditu, nahiz eta, Maitek patioko orduan zigortuta geldituko direla esan ohartarazi dien. Gainontzeko gelakideek proposamena txalotu dute eta Aiorak "Patioa denona da" pankarta margotuko duela agindu du. Bigarren proposamena entzutean txalo zaparrada gela osoan: mozerro festa eta txokolatada! Mikelen begirada argia agertu da.

Apirilaren 30a,

Aiorak margotutako pankarta patioaren pareta nagusian zintzilikatu dugu. Eskolako patioan hippiak, sorginak, erizainak, erreginak, pailazoak, lapurrak, mimoak... dantzan aritu dira.

Mikel mexikar soineko dotorearekin etorri da, txirikorda beltzaran handi eta guzti jarrita, ni berriz, mariatxiz mozerrotuta. Desberdintasunean hain berdinak. Korapiloa jarri zait eztarrian eta eskutik emanda "Patioa denona da" aurtengo Kultur asteko lemapean argazkia atera dugu. Xake mate.